

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

281/2025 Foru Agindua, abuztuaren 28koa. Aramaioko Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabolako landaguneen antolamendurako plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategiko erraztuaren ingurumen txosten estrategikoa formulatzea

“Aramaioko Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabolako landaguneen antolamendurako plan bereziaren” izapideak ingurumen ebaluazio estrategiko erraztuaren prozeduraren mende daude. Prozedura hori Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen eta lurralde antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren bidez arautzen da.

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzu honek “ingurumen dokumentu estrategikoa. IEE erraztua” dokumentuari dagokion ingurumen dokumentu estrategikoa jaso du Aramaioko Udalaren aldetik. Dokumentuak 2018ko maiatzeko data dauka eta ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen bidez araututako gutxieneko edukiaren arabera egin da. Halaber, 2024ko otsailean datatutako “Aramaio 1 landaguneen plan berezia” dokumentuaren zirriborroa ere jaso du.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, arestian aipatutako dokumentazioa jaso ondoren, 2025eko urtarrilaren 16an ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko faseari ekin zion, eta hilabeteko epea ezarri zuen horretarako (21/2013 Legearen 30. artikulua eta 10/2021 Legearen 75. artikulua).

Kontsulten aldia amaitutakoan, txosten hau egin du Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiko Natura Ingurunearen Zuzendaritzak hala eskatuta.

Aurrekarietara dagokienez, aipatzekoa da Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabolako landaguneak antolatzeko plan berezi hori ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura aplikatu zitzaioela. Prozedura hori ingurumen txosten estrategikoa formulatzearekin amaitu zen, Ingurumen eta Hirigintzako diputatuaren urtarrilaren 15eko 8/2019 Foru Aginduaren bidez (ALHAO, 12. zk., 2019ko urtarrilaren 28koa, astelehenekoa).

10/2021 Legearen 75. artikuluko 5. eta 6. apartatuen arabera, txosten horrek indarra galdu du, argitaratu zenetik lau urte baino gehiago igaro baitira plana behin betiko onartu gabe. Beraz, beharrezkoa da plan bereziaren ingurumen ebaluazioaren izapidea berriro hastea.

1. Plan bereziaren aldaketaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Plan bereziaren ezaugarrien laburpen laburra.

Oinarritzko jardun irizpideak Aramaioko udalerriko landaguneen antolamenduari buruzko plan bereziaren espedienteari buruzko 2017ko abenduaren 14ko 357/2017 Foru Aginduaren bidez behin betiko onetsitako dokumentuan ezarritakora igortzen dira:

- Eraikigarritasuna eta etxebizitza kopurua jadanik dagoenaren ehuneko 50era mugatu zen, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 29.5. artikuluen arabera.

- Jada dauden eta aurreikusita dauden baserrien artean ezin dira hogeita bost (25) baserri baino gehiago izan, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 29.5. artikulua arabera.

- Eraikigarriak diren lurzatiek gutxienez sarbide zuzena izan beharko dute jada eraikita dauden bide publiko batetik, eta horrek esan nahi du sarbiderik ez duten lurzatietan ezin izango dela eraiki.

- Planteamenduak ezingo du definitu ekipamendu berririk, espazio librerik, ez trazadura berriko bide publikorik. Jada existitzen direnen mugak eta lerrokadurak arautu besterik ezin da egin.

- Jabari publikoa babesteko mugak eta zortasunak: azpiegitura orokorren, landa bideen eta/edo ibilbide berdeen babes eremuek lurzatietan duten eragina.

- Lurzoru urbanizaezinaren kalifikazio orokorraren gaineratutako baldintzek lurzatietan izango duten eragina.

- Paisaia berezia eta bikaina.
- Europar Batasunaren intereseko habitatak.
- Igarobide ekologikoen sarea.

- Landaredi autoktonoak lurzatietan duen eragina:

- Harizti azidofiloa eta harizti baso misto atlantikoa.
- Hariztien gaztaroko fasea edo fase andeatua.

- Lurzati ezaugarri geometrikoak eta eraikuntza baldintzak 1.6.3.2. artikuluan jasotako eskakizunekin bat eginez. B. plan orokorraren hirigintza araudia dokumentuko B.1 liburuko landaguneen eraikuntza eta erabilerari buruzko ordenantzak, bizitegi eraikin berriaren gehieneko lerrokadurei dagokienez izan ezik, zeinak honako hauek izan baitaitezke: 12x12 m eta gehieneko etxebizitza kopuruaren erregulazioan, zeina LAGetan xedatutakoaren arabera zehaztuko baita.

- Lurzati ezaugarri topografikoak.

- Lurzatietatik Arabako lurzoru urbanizaezineko landaguneetako nukleoen inbentarioan (Diputatuen kontseiluaren abenduaren 1eko 78/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) definitutako landagunearen espazio aglutinatzaile dagoen hurbiltasuna.

- Kultura interesekoak ondasunen paisaia indartzea.

Irizpide hauek ere sartzen dira:

- 2 etxebizitza dituzten baserrien kasuan, aplikatu beharreko arauen II. eranskineko 1.b.3.d. paragrafoan (LAGen ingurune fisikoaren antolamendua) xedatutakoa aplikatuko da, eta lehenetik dauden etxebizitzaren kopurua bikoiztea ahalbidetuko da, baserri bakoitzeko lau (4) etxebizitza gainditu gabe, betiere horietako bakoitzak gutxienez 150 m²(t)-ko azalera eraikia badu.

1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa.

Plan berezi honetan aurreikusitako jarduketak Aramaio udalerriko Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabolako landaguneetan egingo dira.

Guztiak udalerraren erdialdean eta ekialdean daude, eta hegoaldetik Ibarra herrigunea inguratzen dute, udalerriko hiriburua. Arexola eta Arriolara Ibaratik iristen da A-4023 errepidetik, Uribarrira A-4024 errepidetik, Barajuenera A-2620, A-4021 eta A-4022 errepideetatik, Suñara A-2620 eta A-3920 errepideetatik, eta Zabolara A-2620 eta A-4021 errepideetatik. Mendi hegalean leunen gainean daude, burualdeko haranetan. Ibar horietako urek osatzen dute Aramaio ibaiaren iturburua den sare hidrografikoa, ipar-ekialderantz.



1. figura. Plan Bereziaren aplikazio eremua

1.3. Aztertutako aukerak.

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera, guztira hiru aukera hartu dira kontuan ebaluazio prozesuan, eta horietako baten berrikuspena ere sartu da, espedientearen hirigintza izapidetzearen ondorioz. Hona hemen aukera horiek, laburbilduta:

- “0” aukera edo ez jardutekoa (ez da hautatu): Ez gauzatzeari dagokio, eta aukera gisa baztertu da, ez baitio erantzuten hiri antolamendurako plan orokorraren plangintzari.
- “1” aukera (ez da hautatu): Hiri-antolamendurako plan orokorraren proposamenarekin bat dator. Plan horretan, landaguneen mugaketak eta Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabolako 6 landaguneetako bakoitzean bizitegi eraikin berriak onartzeko gaitasuna zehaztu ziren.

Ondorengo taulan aukera honetan jasotako etxebizitza berrien kopurua dago jasota:

	ORAINGO ETXEBIZITZA KOPURUA (HAPO)	ETXEBIZITZA BERRIEN KOPURUA (HAPO)
AREXOLA	10	4
ARRIOLA	8	4
BARAJUEN	19	2
SUÑA	10	5
URIBARRI	10	3
ZABOLA	19	5

[illegible]

2. figura. Landagune bakoitzaren antolamendu xehatua

• “2” aukera (ez da hautatu): Hau ere bat dator “1” aukeran, 6 landaguneetarako bizitegi eraikin berriak onartzeko gaitasunari eta mugaketari buruzkoan, jada aurreikusita dagoen hiri antolamendurako plan orokorraren proposamenarekin. Gainera, lehendik dauden baserrietan eraikigarritasuna ehuneko 25 handitzea eta baserriko gehienez 3 etxebizitza lortzea proposatzen du.

Aukera hori izan zen hautatua eta ingurumen txosten estrategikoa formulatzen amaitzeko oinarria, Ingurumen eta Hirigintzako diputatuaren urtarrilaren 15eko 8/2019 Foru Aginduaren bidez (ALHAO, 12. zk., 2019ko urtarrilaren 28koa, astelehenekoa).

• “2” aukera berrikusia (hautatua): 2024ko otsaileko “Aramaio 1eko landaguneen plan berezia” zirriborrotik ateratako aukera hau definitu da, espedientearen hirigintza izapideetatik datorrena.

Aurreko “2” aukeraren berrikuspena da. Espedientearen hirigintza izapideetatik dator eta, aukera horretan, aplikatu beharreko arauen II. eranskineko 1.b.3.d. paragrafoan (Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) ingurune fisikoaren antolamendua) xedatutakoarekin bat etorritik, baserri gisa katalogatutako eraikinak bitan, hirutan edo lautan (gaur egun 2 etxebizitza badaude) banantzeko baimena ematea planteatzen da, betiere horietako bakoitzak gutxienez 150 m²(t)-ko azalera eraikia badu. Hau da, aurreko “2” aukeratik honetan bereizten da: alde batetik, ez da baimentzen baserrien eraikigarritasuna handitzea, eta, bestetik, LAGetara egokituta, baserrien banantze horizontala baimentzen da, lehendik dauden etxebizitzaren kopurua bikoiztea ahalbidetuz, baserri bakoitzeko 4 etxebizitza inolaz ere gainditu gabe.

Zehaztu behar da “2” aukera berrikusiak ez duela ingurumenaren ikuspegitik jarduketa esanguratsu berririk aurreikusten, eta ez duela “2” aukeran ebaluatutakoez bestelako eragin edo inpaktu garrantzitsurik sartzen. Horregatik, pentsatu da 2018an aurkeztutako ingurumen dokumentu estrategikoa egokia eta baliozkoa dela oraindik plan bereziaren ingurumen ebaluazioaren izapide berri honetarako.

Aukeren balorazioa:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan, kontuan hartutako aukeren eta horiek natura ingurunean duten eraginaren azterketa egiten da, eta analisi hori taula honetan laburbiltzen da:

INGURUMENEAN IZAN DITZAKEEN ONDORIOAK	0 AUKERA	1 AUKERA	2 AUKERA
Lurzoruaren okupazioa	Ez	Bai	Bai
Landaredian eraginak sortzea	Ez	Bai	Bai
Lehentasunezkoak ez diren habitatetan eraginak izatea	Ez	Bai (6510 habitata)	Bai (6510 habitata)
Lehentasunezko habitatetan eraginak izatea	Ez	Ez	Ez
Nekazaritza balioa duten lurzoruetan eraginak izatea	Ez	Ez	Ez
Uholde arrisku baldintzetan eraginak izatea	Ez	Ez	Ez
Ibai eta erreken bazterrek hobetzea	Ez	Ez	Ez
Faunan eraginak izatea	Ez	Ez (baina kudeaketa planak kontuan hartu behar dira)	Ez (baina kudeaketa planak kontuan hartu behar dira)
Paisaia katalogatuetan eraginak izatea	Ez	Bai	Bai
Dagoeneko antropizatuta dagoen lurzoruaren aprobetxamendua	Ez	Bai	Bai

2 aukeraren alde egin da, antzeko ingurumen eraginak baititu “2” aukera berrikusiarekin alderatuta, eta abantaila baitu hiri jasangarritasuneko irizpideei dagokienez. Bereziki, aukera horrek ahalbidetzen du jada antropizatuta dagoen lurzoruaren aprobetxamendua optimizatzea, eta hiri hazkundeko eredu trinko eta jarraitua bultzatzen du.

2. Kontsulta aldiaren laburpena

2025eko urtarrilaren 16an hasi zen eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsultak egiteko fasea, araututako prozeduraren arabera. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duten adierazi da:

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza	X
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzako Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza	
URA – Uraren Euskal Agentzia	X
EEE – Energiaren Euskal Erakundea	
Ihobe – Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	
Aramaioiko Udala	
Gorbeialdeko Kuadrilla	
Arabako Kontzejuen Elkarte – AKE	
Arabako Natur Institutua	
Eguzki talde ekologista	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN – Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Hontza Natura Elkarte	
Gaia elkarte	
Mendizaleen Federazioa. Ingurumen Atala	
Aranzadi Natura Zientzien Elkarte	
SEO BirdLife – Espainiako Ornitologia Elkarte	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarte	
Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritza	X
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua (Ura)	
Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzua	X

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoak, laburbilduta (alegazio edo adierazpenen kopia osoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 25/02 espedientean eta www.araba.eus webgunean):

– URA- Uraren Euskal Agentziak txosten bat egin du espedientearen aurrekariak adierazteko, eta zenbait txosten egin dituela adierazi du: lehenengoa, ingurumen ebaluazioaren izapidean, 2018ko irailaren 11n (erref.: IAU-2018-0208); bigarrena, hasierako onespenean, 2021eko irailaren 16an (IAU-2021-0069); hirugarrena, hasierako bigarren onespenean, 2022ko irailaren 8an (IAU-2022- 0187); laugarrena, EAELABen bilkuran, 2023ko martxoaren 14an (IAU-2023-0068); eta, azkena, EAELABen bilkuran, 2024ko maiatzaren 7an (IAU-2024-0103). Plan bereziak aldeko txostena jaso zuela jasotzen du, zenbait baldintza loteslerekin, eta egiaztatu du baldintza horiek ez direla dokumentazioan sartu. Horregatik, aipatutako txostena erantsi du (EAELABen bilkurarako txostena, IAU-2024-0103 erreferentzia zenbakia duena), prozeduran zehar agentzia horrek emandako baldintza lotesleak txerta daitezen. Hona hemen baldintza lotesle horiek:

- Plan bereziaren arau orokorretan edo partikularretan berariaz jaso beharko da txostenaren 3.4 apartatuan adierazitakoa, Arexola, Arriola, Uribarri, Barajuen, Suña eta Zabolako landaguneetako hondakin uren saneamenduari dagokionez.

- Zuzendu beharko dira I.4 azpiegiturak. Hornidura eta saneamendua plano seriean Arriola, Arexola eta Suña landaguneetako saneamendu sareak.

- Plan bereziaren arau orokorren 18. artikulua honako aipamen hau jasoko du: “Jabari publiko hidraulikoari eragiten dion edo hari lotutako babes eremuetan (zortasuna eta zaintza) kokatzen den jarduketa orok Uraren Euskal Agentziaren nahitaezko administrazio baimena beharko du”.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, lehenik eta behin, espedientearen aurrekariak jaso ditu bere txostenean, eta, ondoren, adierazi du, kultura ondarearen tratamenduari dagokionez, ez dela funtsezko aldaketarik hauteman jakinarazitako azken bertsioaren aldean, eta errepikatu egin ditu lehenago egindako gogoetak eta gomendioak. Hona hemen oharrek laburbilduta:

- Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen erreferentziak eguneratzea, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea (EHAA, 93. zk., 2019ko maiatzaren 20) indarrean sartzean indargabetu egin baitzen, eta 14/2023 Legeak (EHAA, 238. zk., 2023ko abenduaren 15) aldatu baitzuen.

- 6/2019 Legearen aldaketaren ondorioak aipatzen ditu, “6/2019 Legearen ondorioetarako kultura ondasunak oinarritzko babes mailarekin aitortzeari” dagokionez, eta udalek beren plangintzaren eta katalogoen bidez beste arkitektura ondasun batzuk babesteko aukerari dagokionez, zeinei udal babeseko kultura ondasun esaten dien. Halaber, 6/2019 Legearen seigarren xedapen iragankorrean jasotakoaren ondorioak aipatzen ditu.

- Baserrietan etxebizitza kopurua handitzeko esku hartzeko aukerak merezi duen azterketa berezia aipatzen du. Esku hartzeko proiektu horiek bateragarriak izan beharko lukete, nolanahi ere, txostenean bertan jasotzen den eranskinetako zerrendetan jasotako baserrien balio historiko-arkitektonikoen kontserbazioarekin. Horregatik, gomendatzen du, udal lizentzia eman aurretik, higiezin horiei eragiten dieten eraikuntza proiektuei buruzko kontsulta egitea Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuari.

- Azpimarratu behar da plan berezian sartutako landagune guztien artean ondare interes bereziki garrantzitsua duten hiru baserri daudela:

- Arexolan, Erdikoa baserria proposatuta dago babes bereziko kultura ondasun izendatzeko. Subsidiarioki, izendapen hori egiten ez den bitartean, plangintzan babestea gomendatzen da, oinarritzko babeseko ondasun gisa, 6/2019 Legearen ondorioetarako (6/2019 Legearen 8.1.c) artikulua), udaleko hirigintza plangintzaren katalogoan sartuz. Bertan egiten diren jarduketek arreta berezia izan beharko dute, eta Ondare Urbanizatu eta Eraikia Birgaitzeko Jarduketa Babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren I. eranskinetako (“birgaitzeko esku-hartzeak”) zaharberritze zientifikoko esku hartzeetarako ezarritako irizpideei jarraitu beharko diete.

- Suñan, Zakona/Zakone baserriak babes ertaineko kultura ondasun izendatzeko balio nahikoa du. Subsidiarioki, izendapen hori egiten ez den bitartean, udal plangintzaren bidez babestea gomendatzen da, oinarritzko babeseko ondasun gisa, 6/2019 Legearen ondorioetarako (6/2019 Legearen 8.1.c) artikulua). Bertan egiten diren jarduketek arreta berezia izan beharko dute, eta 317/2002 Dekretuaren I. eranskinetako (“birgaitzeko esku-hartzeak”) zaharberritze kontserbatzaileko esku hartzeetarako ezarritako irizpideei jarraitu beharko diete.

- Zabolan, Zuatzua/Zuaza baserria proposatuta dago babes bereziko kultura ondasun izendatzeko. Subsidiarioki, izendapen hori egiten ez den bitartean, plangintzan babestea gomendatzen da, oinarritzko babeseko ondasun gisa, 6/2019 Legearen ondorioetarako (6/2019 Legearen 8.1.c) artikulua), udaleko hirigintza plangintzaren katalogoan sartuz. Bertan egiten diren jarduketek arreta berezia izan beharko dute, eta 317/2002 Dekretuaren I. eranskinetako (“birgaitzeko esku-hartzeak”) zaharberritze zientifikoko esku hartzeetarako ezarritako irizpideei jarraitu beharko diete.

- Dokumentazioari hirigintza fitxak eranstea gomendatzen du. Fitxa horietan, lurzati eta/edo eraikin bakoitzaren babes maila, antolamendu xehatua eta indarrean dauden esku hartzeko irizpideak zehaztuko dira, hiri antolamendurako plan orokorreko ondarea babesteko araudiaren arabera.

- Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuak jakinarazi du plangintza aldaketak ez direla kokatzen Natura 2000 Sareko Naturagune Babesturen baten barruan, ezta fauna mehatxatuarentzako kudeaketa planen interes bereziko eremuetan ere. Ondorioztatu du ez dela eragin nabarmenik sortuko espezie eta habitatetan, eta, beraz, aldeko txostena eman du, proiektatutako antolamenduak behar dituen beste baimen batzuk alde batera utzi gabe.

- Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak ohar hauek egin ditu:

- Eraikin babestuetako etxebizitza kopurua handitzea onargarria izango da ondasunaren balio babestuei eragiten ez badie eta kontserbaziorako eta balioa emateko baldintza hobeak badakartza.

- Idazten den dokumentuari ondare historiko-arkitektoniko guztia eranstea, udal katalogoan sartutako ondasunak kontuan hartzeaz gain, dauden ondare historiko-arkitektonikoaren zerrendetan jasotako elementuak ere sartzeari gomendatzen da, behar bezala eguneratuta.

- Ondare historiko-arkitektonikoaren babes araubideari dagokionez, beharrezkotzat jotzen da elementu higiezin bakoitzaren banakako azterketa egitea fitxen bidez, eta proposatzen du oinarritzko babesekeko elementuen fitxek eta udal babesekeok 6/2019 Legearen 16. artikuluan babes berezi eta ertaineko eraikinentzat ezarritakoaren antzeko edukia izatea. Horretarako, banakako fitxa eredu bat erantsi dio txostenari.

- Plan berezian jasotako hiri estetika babesteko berariazko araudia garatzeko, oso interesgarritzat jotzen da landa inguruneen alderdi kromatikoa aztertzea. Horri dagokionez, zerbitzuak berak egindako gida bat proposatzen dugu, “Arabako monumentu multzoetan kolore paleta bat ezartzeko aurretiko azterlanak” izeneko.

- Gomendatzen da ondare historiko-arkitektonikoaren elementuek hurbileko elementuekin eta espazio publikoarekin duten erlazioa aztertzea hiri morfologiaren testuinguruan, hiri eszenak jaraunspen historiko horren balioa nabarmentzeko moduan. Ildo horretatik, komenigarria izango litzateke, baita ere, hartan nolabaiteko eragina duten elementuak arautzea, hala nola kale zoladura, garajeetako ateak, euspen hormak, fatxadetako materialak, hiri altzariak, era askotako seinaleak e.a.

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak jakinarazi du plan bereziari buruzko txostena eman zela lehenago, hau adieraziz:

- Aipatutako gaiari dagokionez, eta aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, jakinarazten dizugu planaren memorian jasota daudela azterlanaren eremuan eta haren ingurune hurbilean dauden zona arkeologikoak, eta Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legean xedatutakoa bete beharko dela.

Artikulu honetan jasotakoa betetzen bada (6.12 artikulua, Kultura Ondarea, 33. orrialdea), ondare arkeologikoa behar bezala babestuta egongo da balizko eraginen aurrean.

Dioenez, 2019ko maiatzaren 20tik dago indarrean Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legea (EHAA, 93/2016 zk.), eta, beraz, plan bereziaren arau testua egokitu egin beharko da lege horretan xedatutakora. Beraz, HAPBren ondare katalogoak honako hauek izango ditu:

- Zona arkeologikoetarako berariazko fitxak (babes berezikoak, babes ertainekoak, ustezko zona arkeologikoak edo Eusko Jaurlaritzaren inbentarioetan sartzeko proposatutako zonak), eta zerrenda eta planoko kokapena.

- Eraikitako ondasunetarako berariazko fitxak (babes berezikoak, ertainekoak, eta oinarrizko babesekoak), eta zerrenda eta planoko kokapena.

- Aldi berean ondare eraikia eta arkeologikoa diren ondasunetan, fitxak bi baldintza horiek jaso beharko ditu.

— Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak jakinarazi du ez diola lurzoru urbanizaezinari eragiten, eta, beraz, ez dela Nekazaritza eta Basogintzaren LPSaren eskumen eremua-
ren barruan sartzen. Hala ere, landabideetan duen eragina eta Arabako Lurralde Historikoko
landa bideak erabili, artatu eta zaintzeko 6/1995 Foru Arauaren aplikazioa aipatzen ditu.

3. Ingurumen balorazioa. Ingurumen inpaktu nagusiak

Plan berezitik eratorritako ingurumen eragin nagusiak paisaia, landaredian eta lurzoruan
gauzatuko direla aurreikusi da.

Adierazi behar da Arexola, Arriola, Barajuen eta Uribarri landaguneak Arabako Lurralde
Historikoko paisaia berezi eta bikainen katalogoan katalogatutako eremu batean daudela (Dipu-
tatuaren Kontseiluaren irailaren 27ko 829/2005 Erabakiaren bidez onetsi zen), “Oleta-Arangio-Iba-
rrako (Aramaio)” paisaia bikain gisa, 28. kodearekin. Beraz, hiriguneetako urbanizazio eta
eraikuntza jarduketetan kontuan hartu beharko da paisaiaren aldetik beharrezkoa den babesa.

Gainera, landaguneen mugaketaren barruan, eta, bereziki, bizitegi eraikin berriak aurreikusi
diren lurzati gehienetan, intereseko landaredi naturala dago, bereziki katalogatutako intere-
seko habitata, 6510: “Altitude txikiko sega-belardi elkorrak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba*
offinalis)”, nahiz eta habitat hori ondo ordezkatuta egon eskualdean, eta izaera autoktonoko
zuhaitz aleak, hala nola zenbait haritz (*Quercus robur*) Arriolan, edo tamaina bikaineko arteak
(*Quercus ilex*) Suñan. Zuhaitz horiek eraginak jasan ditzakete erreferentziazko plan berezian
jasotako jarduketak gauzatzen baldin badira.

Era berean, kontuan hartu behar dira plan berezia ezartzeak eragingo lituzkeen ondorio
aurreikusgarriak, eraikuntza eta urbanizazio obrak gauzatzeak eragingo lituzkeenak; adibidez,
baliabideen kontsumoa (materialak eta energia), emisioak atmosferara, lurzorura eta bertako
elementu hidrografikoetara (sare hidrografikora isurtzen diren industria eremuko jariatze urak),
zarata edo eraikuntza hondakinak sortzea. Eragin horiek aldi baterakoak izango dira eta obrak
amaitu bezain laster desagertuko dira, baina beharrezkoa izango da obrak gauzatzeko jar-
dunbide operatibo egokiak hartzea eta, kasua bada, prebentzio eta babes neurri egokiak.

Beste alde batetik, beste etxebizitza gehiago eraikitzeak edo baserriak gehiago zatitzeak
hornidura eskaera gehiago dakartzate eta hondakin eta isurketa gehiago sortzea, eta behar
bezala kudeatu behar dira saneamendu egokia bermatzeko. Ildo horretan, URA-Uraren Euskal
Agentziaren txostenak Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Erraztuaren prozedura honen kontsulta
fasean egindako errekerimenduei kasu egin beharko zaie.

Azkenik, ingurumen ebaluazio estrategiko erraztuaren prozedura honen kontsulta fasean,
kultura ondarearen tratamenduari buruzko zenbait ohar adierazi dituzte Eusko Jaurlaritzako
Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen
Zerbitzuak eta Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak.

4. Ingurumen baldintzak

Uste da, garrantzi handiko balizko ingurumen ondorio kaltegarriak minimizatzeko, Aramaio
udalerriko “Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabolako landaguneak antolatze-
ko plan berezia” izapidetzeko orduan, ingurumen ebaluazio estrategiko erraztuaren prozedura
honen esparruan sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan jasotako baldintzak eta zehazta-
penak bete beharko direla. Hala, plan bereziaren hirigintza agiriaren 10. atalean deskribatutako
ingurumen integrazioko neurriak jaso beharko litrateke (neurri prebentiboen, zuzentzaileen eta
osagarrien proposamena klima aldaketa kontuan hartuz), baita plan bereziaren hirigintza agiriari
egindako ingurumen agiri estrategikoaren 11. atalean (hiri antolamendurako plan bereziaren
ingurumen jarraipena egiteko aurreikusitako neurrien deskribapena) zehaztutakoak ere.

Horrez gain, honako neurri hauek hartu beharko dira:

A) 1.6.2.3. artikulutik ateratako testu hau jaso beharko da plan bereziaren araubidean: “Gaineratutako baldintzak dituzten areetan eta lurzoru urbanizaezinaren azpikategorizazioan erabilera eta eraikinei ezarritako muga gehigarriak”, indarrean dagoen HAPOn dokumentu arauemailekoak (behin betiko onespena 2012ko irailaren 5eko ALHAOn): “eraikuntza erabilera baimentzeko, bai eta paisaia berezi eta nabarmenei eragiten dien beste edozein erabilera baimentzeko ere, batez ere Arabako Lurralde Historikoaren katalogoan jasotakoei dagokienez (...), aldez aurretik ingurumen ondorioen magnitudeari buruzko berariazko balorazio txosten bat egin beharko du paisaiaren arloko foru organoak, eta txosten horrek paisaia ondorioen magnitudea baloratuko du eta, hala badagokio, hartu beharreko neurri babesle eta/edo zuzentzaileak proposatuko ditu.” Era berean, honako hau gaineratzen da: “lurzoruaren kalifikazioagatik baimendutako erabilerak, eraikinak, eraikuntzak eta instalazioak garatzen dituzten planek edo proiektuek, kalifikazio horretan paisaia berezi eta nabarmenak barne hartzen badira, ingurumena lehengoratzeko eta paisaiara egokitze proiektu bat izan beharko dute, horien ingurunearekin bat datorrena, sor ditzakeen eragin kaltegarriak minimizatzeko eta paisaia lehengoratzeko kasuan kasuko jarduketak gauzatu beharko dituzte”.

Ildo horretan, eta kontuan hartuta Arexola, Arriola, Barajuen eta Uribarri landaguneak Arabako Lurralde Historikoko paisaia berezi eta bikainen katalogoan katalogatutako eremu batean daudela (Diputatuen Kontseiluaren irailaren 27ko 829/2005 Erabakiaren bidez onetsi zen), “Oleta-Arangio-Ibarrako (Aramaio)” paisaia bikain gisa, 28. kodearekin, eskatzen da plan berezian jasotako jarduketak gauzatzen baldin badira HAPOn 1.6.2.3. artikuluan xedatutakoaren arabera jarduteko.

B) Plan bereziaren araudian berriro aipatu beharko da Aramaioko HAPOn dokumentu arauemailearen 1.6.2.3 artikulua (behin betiko onetsi zen 2012ko irailaren 5eko ALHAOn). Artikulu horrek honako hau adierazten du, Europar Batasunaren intereseko habitatetan izan daitezkeen eraginei dagokienez: “Europar Batasunaren intereseko habitatak barne hartzen dituen lurzoruaren kalifikazioak baimendutako erabilerak, eraikinak, eraikuntzak eta instalazioak garatzen dituzten planek edo proiektuek haien ingurunearekin bat datorren ingurumena lehengoratzeko eta paisaia egokitze proiektu bat jaso beharko dute”.

C) Urbanizatzeko eta eraikitze jarduketek, bai handitze prozesuetan bai eraikuntza berriak gauzatzean, ingurumen interes eta paisaia balio handia duten espezie autoktonoen zuhaitz aleen babesa eta kontserbazioa hartu beharko dituzte kontuan, espazio publikoetan zein pribatuetan, ingurunean integratzen direla bermatuz eta obrak egin bitartean zuzenean edo zeharka eragitea saihestuz.

D) Gainera, plan bereziaren araubide atalean honako baldintzak jaso beharko dira. Baldintza hauek etxebizitzak handitzeko eta etxebizitza berriak eraikitze obrak egikaritzean aplikatu beharko dira:

— Obrak egiteko kentzen diren landare luraren lurzoru horizonteak modu selektiboan kudeatuko dira, eta komenigarria izango da berehala birbanatzea edo, ezin bada, pilatzea plan bereziaren eremuko zona batean. Gehienez 2,5 metro garai izan daitezkeen sekzio trapezoidaleko multzoetan egin behar da pilaketa. Landaretza eta, halakorik ezean, nekazaritza lurzoru lehengoratzeko lanetarako erabiliko da landare lurra.

— Plan berezia garatzeko jardunak gauzatzean, obrek irauten duten bitartean, lubrifikatzaileak edo erregaia biltegiratzeko ontzi estankoak, biltegi iragazgaitzak edo beste sistema batzuk erabiliko dira. Debekaturik dago erabilitakoak isurtzea; baimendutako kudeatzaile bati eman behar zaizkio horiek. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: sortu daitezkeen hormigoi hondakinak, eraikuntza materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak hondakindegia edo zabortegi baimendura eraman beharko dira. Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazi bezala kudeatu beharko dira eraikuntzako eta eraipen lanetako hondakinak. Dekretu horrek eraikuntzako eta eraipenetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu.

E) Kontuan hartu beharko dira Uraren Euskal Agentziako Plangintza eta Obra Zuzendaritzak ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura honen kontsulta fasean egindako txostenaren zehaztapenak, eta, bereziki, Arexola, Arriola, Uribarri, Barajuen, Suña eta Zabolako landagunee-tako hondakin uren saneamenduari dagokionez, bai eta jabari publiko hidraulikoari eragiten dioten edo hari lotutako babes eremuetan (zortasuna eta zaintza) kokatzen diren jarduketei dagokionez ere.

F) Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren txostenaren zehaztapenak hartu beharko dira kontuan, eta, bereziki, elementu higiezin bakoitzaren banakako azterketari dagokionez, fitxen bidez, ondare historiko-arkitektonikoaren babes araubideari dagokionez.

G) Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren txostenaren zehaztapenei kasu egin beharko zaie, Plan Bereziaren arau testua Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legea egokitzeari dagokionez (EHAA, 93/2016 zk.).

Azaldutako guztian oinarrituta, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatu gisa eman zaizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aramaio udalerriko Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabolako landagunak antolatzeke plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategiko erraztuaren ingurumen txosten estrategikoa egitea.

Bigarrena. Ingurumen txosten estrategikoa nahitaezko txosten loteslea izango da, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.1 artikulua arabera.

Hirugarrena. Ingurumen txosten estrategikoak indarraldia galduko du eta ondorioak sortzei utziko dio baldin eta ALHAOn argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita lau urteko epean plana egiten edo onesten hasi ez badira, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.5 artikulua betez. Kasu horretan, Lege horren 75.6 artikulua arabera, sustatzaileak berriz ere hasi beharko ditu planaren ingurumen ebaluazioaren izapideak, baldin eta indarraldia luzatzeko eskatzen ez badio ingurumen organoari. Kasu horretan, ingurumen organoak, hala badagokio, ingurumen txosten estrategikoaren beste indarraldi bat emango du, erregelamenduz ezarriko den moduan.

Laugarrena. Agintzea ingurumen txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abuztuaren 28a

Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatua
SARAY ZÁRATE FERNÁNDEZ DE LANDA

Natura Ingurunearen zuzendaria
MARIA JOSÉ MADEIRA GARCÍA